ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

7080

EBAZPENA, 2008ko azaroaren 28koa, Gizarte Ongizateko zuzendariarena, «irtenbide berritzaileak dakartzaten gizarte-ekimen esperimentalak» laguntza-ildoari 2008ko ekitaldirako dagokion aurrekontu-kreditua zein egunetan agortu den jendaurrean jartzen duena. Gizarte zerbitzuen arloko jarduerak arautzen dituen ekainaren 11ko 133/2002 Dekretuan aurreikusten da laguntza-ildo hori.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren 2008ko urtarrilaren 30eko Aginduaren bitartez, 2008ko ekitaldirako deialdia egiten da Gizarte Ongizateko Zuzendaritzaren eskumenekoak diren hainbat arlotan eragin zuzena duten arazoei erantzuteko irtenbide berritzaileak dakartzaten gizarte-ekimen eta programa esperimentaletarako laguntzetarako. Edonola ere, ekainaren 11ko 133/2002 Dekretuak aurreikusitako kide anitzeko organoak baloratu behar du jarduketa horiek badirela irtenbide berritzaileak dakartzaten ekimen esperimentalak.

Agindu horren 9. artikuluan ezarritakoaren arabera, laguntzak administrazio-ebazpenen bidez ukatuko dira, baldin eta dagokien ekitaldiko deialdian zehaztutako kopuru osoa gainditzen badute. Une horretatik aurrera bertan behera geratuko da aginduaren indarra.

Hori dela-eta, egoera horren berri emateko, Gizarte Ongizateko zuzendariak administrazio-ebazpena emango du; bertan adieraziko du zein egunetan gertatu den egoera hori. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da ebazpena.

Ondorioz, aipatutako laguntzak emateko 2008ko aurrekontu-ekitaldirako fondoak agortu direnez, ondokoa,

XEDATU DUT:

Lehenengoa.– Jendaurrean jartzea 2008ko azaroaren 28an agortu egin dela «irtenbide berritzaileak dakartzaten gizarte-ekimen esperimentalak» laguntza-ildoari 2008ko ekitaldirako dagokion aurrekontu-kreditua. Gizarte-zerbitzuen arloko jarduerak arautzen dituen ekainaren 11ko 133/2002 Dekretuan aurreikusten da laguntza-ildo hori.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzeko agindua ematea.

Vitoria-Gasteiz, 2008ko azaroaren 28a.

Gizarte Ongizateko zuzendaria,
MARÍA ELENA AYARZA ELORRIAGA.

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

7080

RESOLUCIÓN de 28 de noviembre de 2008, de la Directora de Bienestar Social, por la que se hace pública la fecha en que se ha agotado el crédito presupuestario correspondiente al ejercicio 2008, en el marco de la línea de ayudas a iniciativas sociales de carácter experimental que aporten soluciones innovadoras, previstas en el Decreto 133/2002, de 11 de junio, de realización de actividades en el área de los servicios sociales.

La Orden de 30 de enero de 2008, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, efectúa la convocatoria para el ejercicio 2008 de las ayudas para las iniciativas y programas de carácter experimental y novedoso que aporten soluciones innovadoras ante problemas que afectan directamente a las materias sobre las que tiene competencia la Dirección de Bienestar Social. En todos los casos, se trata de actuaciones que deben ser valoradas como iniciativas de carácter experimental que aporten soluciones innovadoras por el órgano colegiado previsto en el Decreto 133/2002, de 11 de junio.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 9 de la citada Orden mediante resolución administrativa se procederá a denegar las ayudas en el caso de que éstas superen la cuantía total especificada en dicha convocatoria, suspendiéndose a partir de ese momento la eficacia de la disposición.

Por todo ello, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, por la Directora de Bienestar Social se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido este hecho, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por lo expuesto, y habiéndose agotado, para el ejercicio presupuestario 2008, los fondos destinados a la concesión de estas ayudas,

DISPONGO:

Primero.– Hacer público que, con fecha 28 de noviembre de 2008, ha quedado agotado el crédito presupuestario consignado para el ejercicio 2008 con destino a la concesión de ayudas iniciativas sociales de carácter experimental que aporten soluciones innovadoras, previstas en el Decreto 133/2002, de 11 de junio, de realización de actividades en el área de los servicios sociales.

Segundo.– Ordenar la publicación de la presente Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 28 de noviembre de 2008.

La Directora de Bienestar Social,
MARÍA ELENA AYARZA ELORRIAGA.